

EUSKAL IZENDEGIAREN 3. ARGITALPEN AURKEZTATZEAN

Bilbon, 1984, Martxoak 30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Ospakizun honi buruz esan behar zen dena, edo ia dena, esana dute jadanik ene aurretik mintzatu direnek. Amaierako hitz hauetan labur izango naiz, bada. Bi punturi lotuko natzaio soilki. Bata: Euskaltzaindiak Lan Kide Aurrezkiarekin dituen lotura zahar eta aspaldikoak. Bestea: Izendegi honek Euskaltzaindiarentzat duen balioa.

Gaur kaleratzen edo plazaratzen da Euskal Izendegia bere hirugarren argitalpean. Eta beronen aurkeztapena hemen Bilbon egiten dugu, Lan Kide Aurrezkiaren etxean, hain zuzen. Arrazoi bat zen horretarako, hitzetik hortzera gogoratzen zaidana: argitalpen hau koedizio gisa egingo dela, ateratzen diren aleak erdi bana edo ordaintzen dituztela, alde batetik etxe horrek, eta, bestetik, Euskaltzaindiak. Baina gure har-emanak eta loturak Lan Kide Aurrezkiarekin ez dira oraingoak, zahar xamarrek baizik. Atsegin zait Euskararen Liburu Zuria eta Estudio Socio linguistico del Euskara direlako lan gotorrek hemen aipatzea. Horiek ere Euskaltzaindiak Lan Kide Aurrezkiari eta Siadecori esker burutu ahal izan zituen.

Eta orain Pertsona Izendegia ere, bere hirugarren argitalpen honetan, Lan Kide Aurrezkiaren laguntzaz ateratzen du Euskaltzaindiak.

Liburuskara horren lehen argitalpena 1972an egin zen; bigarrena, berriz, 1977an. Oraingo hirugarrena dugu, beraz.

Beste gauza askotan bezala, Euskaltzaindia, arazo honetan sartu bazen, kanpotik zetorkion eskeari erantzuteagatik sartu zen. Gurasoek nahi izaten zuten euskal izena jarri beren umei. Legeak ataka hertsia uzten zuen horretarako, baina zerbait bai, eta orduan Euskaltzaindira etortzen ziren euskal izenen bila edo sinestamendu bila. Horrela konturatu zen Euskaltzaindia honelako Izendegi bat prestatzea oso beharrezkoa zela. Ordutik hona denborak aldatu egin dira. Gaur legeak ez du trabarik bat ere jartzen. Eta, dakigunez, gaur edozein hitz pertsona izentzat hartzeraino heldu dira gauzak. Horregatik, kanpoko giroa arras aldatu delako, argitalpen hau ezin izan zitekeen beste biak bezalakoa.

Zer egin behar zen? Erabiltzen diren izen guztiak zakuan sartu? Batetik, hori ez zen posible, eta, bestetik, gomendagarri ere ez. Euskaltzaindiak behar du nolazpait gidari eta ispilu izan. Ez dena sar, baina ez aterik itxi ere. Beraz, halako aukera zabal bat egin da.

Eta lan horren egiteko ardura Euskaltzaindiak Satrustegi euskaltzain jaunari egotzi zion, bera zeregin horri aspaldiko urtetan emana dagoelako eta arlo horretan trebea eta aditua delako. Hori egiaztatu nahi duena bihoa Urdiainera, Satrustegi jaunak han dituen fitxategi galantak miaztera.

Nik badakit gauzak ez direla behin ere denen gostura egiten, eta gutiago eremu honetan. Azkengabeko osina, osin beltza da izenen arlo hau. Arlo edo sail honetan gauza asko dugu oraindik erabaki gabe eta liburu honetan ere ez dira erabakitzen. Baina itsumustuan dena egiterik eta erabakitzerik ez dago. Behar bezalako azterketak egin gabe eta gauzak bere umotasunera heldu artio ezin dira erabakiok hartu. Honekin esan nahi dut liburu hau ez dela zerbait itxia eta osotoro bukatua, urrats bat dela, eta geroago eman daitezkeen urratsentzat ez duela aterik ixten.

* * *

Zerbait gehiago gaineratu nahi dut liburu honen balioaz. Euskaltzainburu naizen aldetik, uste dut hitz bat esatera behartua nagoela, zeren eta zurrumurru batzuk heldu baitira ene belarrietara, liburuak autore jakin baten izena daramalako eta gero segituan Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala dela esaten delako. Baina, jaunak, nik horretan ez dut ikusten kontradiziorik edo bitxikeriarik bat ere.

Euskaltzaindiak bere lanak egiteko modu edo prozedura bat baino gehiago du, eta haren agiri eta erabakiak ere ez daude denak maila berean. Esan nahi dut Euskaltzaindiaren agiri eta erabakietan badela mailakatze bat. Ikus hortaz gure Idazkariordearen lana "Akademia-onartze maila desberdinez", gure agerkarian agertua: **Euskera** (1977), 761.

Akademiak gauza batzuk zuzenean egiten ditu, edo, nahiz eta batzorde batek aurre-lana egin, gero batzarreak dena zehatz-mehatz aztertzen eta azkenean erabakitzen du. Honela erabakitako gauzek lehen mailako onarpena izan ohi dute. Hala onartuak izan dira, esate baterako, aditz batua, "H" letrarako hitz zerrenda, ortografi edo gramatika arazo nagusiak, etab.

Beste bide bat izan daiteke batzorde esku uztea gauza eta batzordeak, Euskaltzaindiak emandako ahalaz erabakitzea.

Eta beste bat oraino —eta hau da gure kasua— euskaltzain bati lana agintzea, beste euskaltzainek oharrak eta aportazioak eginez, eta horrela egindako lana Euskaltzaindiak gero orokorki, hau da, hitz denak bana-banaka aztertu gabe, onartuaz. Hau izan da kasu honetan hartu den bidea. Euskaltzaindiak bere onarpena eman dio, ez lehen mailakoa, noski. Ez da posible Euskaltzaindi osoa izen guztiak, hemen daudenak eta agian egon behar luketenak, arakutzen ibiltzea. Ez luke lana sekula bukatuko eta ez beste ezer egiteko astirik ere izango. Gerta daiteke, beraz, eritzi desberdinak egotea kasu partikularretan, baina Euskaltzaindiaren ageri ofiziala dela ezin daiteke uka. Onarpen maila bat du, ez lehenbizikoa, baina bai bigarren edo hirugarren mailakoa.

Beraz, hemen ez dago kontradiziorik bat ere, eta nahi dut hau garbi geldi dadin. Lanak autore jakin bat du. Beste aldetik, lan hau egiteko ardura Euskaltzaindiak egotzi zion, eta lana Euskaltzaindiak onartua izan da. Beraz, Euskaltzaindiak balio ofiziala eman dio. Ipi-apa guztietan euskaltzain denak bat ez etortzea edo eritzi bereko ez izatea, gerta daitekeena da, baina horrek ez du, den gutiena ere, esan dudana

ezeztatzen edo arriskutan jartzen. Beraz, Satrustegi jaunaren lana da, baina Euskaltzaindiarena ere bada, zeren Euskaltzaindiaren aginduz egin baita, eta Euskaltzaindiak onartu eta beretu egin baitu.

Bukatzeko, Satrustegi jaunari eta Lan Kide Aurrezkiari eskerrik beroenak Euskaltzaindiaren eta neure izenean.